

Berriketan

Debako herri aldizkaria - 201. alea - 2015eko azaroa

“Azaroaren 25a
beharrezkoa
da, baina ez
da nahikoa”


multiópticas UZURI



OSTOLAZA, 7 • 20820 DEBA
TEL. 943 19 21 92

multiópticas Uzuri

ZURE ENTZUMENA ZAINTZEN




Hazitik
ZURE EKODENDA

San Roke Kalea 6, DEBA
tel.: 943 02 99 63
e-mail: hazitik@gmail.com



kutxa
kutxabank



AUKERA INMOBILIARIA

www.aukera-inmobiliaria.com
Aukerarik onena!

943 12 13 95 



URDAITEGIA AITTOLA HARATEGIA

Astillero, 3
Tlfnoa.: 943 191 776
20820 DEBA



LENTZERIA
Azoka
MERTZERIA

Itur kalea, 9 • Tlfnoa.: 943 192 722 • DEBA



urlo
SERVICIOS INMOBILIARIOS
HIGIEZINEN ZERBITZUAK

Sokagin, 2 bajo Apartado 3
20820 DEBA

Tel.: 943 192 471
Tel./Fax: 943 192 303
urlo@urlosi.net

 N.º 379

Higiezin Zerbitzuak
Aholkularitza
Higiezin Agentzia
Komunitateen administrazioa
Tasazioak/ Balioztaketak



RAIKETAK S.L.
SAGARMIÑA

Hondartza, 3-4 behe - Apartado, 31
20820 DEBA (Gipuzkoa)
Tel./Fax: 943 192 249
Mugikorrak: 629 639 655 / 629 641 910
sagarmina@sagarmina.com
www.sagarmina.com



haizea
estetika

Tlf. 943 029 607
Iturkale 22. 1 eskubia
sarrera Zesterokua plazatik



ISABEL FRUTADENDA

Sokagin Kalea, 2 behe - 20820 DEBA
943 029 186

MAZKUNE
EREA PRODUZITZA ETA ZERBITZUA
1975etik zuekin!



ARKATZA
Liburudenda

Tel.: Ostolaza, 3
943 192 057
20820 DEBA



Calbeton
JATETXEA

Agustín Larrañaga Elorza

Denboraldiko platera
arrain eta barazkitan

Hondartza kalea
Tlfnoa.: 943 191 970
20820 DEBA (Gipuzkoa)



L.A.
LARRAMENDI ANAIK, S.L.

- LIXATUAK
- BERNIZATUAK
- PARKET
- PARKET FLOTANTEAK

Tlfnoa.: 943 021 959
Mobila: 670 411 786
Tel.-Fax: 943 191 782

ARTZABAL AUZOA
20820 DEBA (Gipuzkoa)



sasoiiko

ekodenda,
dietetika,
belardenda

ZERBITZUAK:

- * Fisioterapia: teknoterapia (INDIVA)-drenaje linfáticoak -lesioak -...
- * Gimnasia hipopresiboak
- * Dietista
- * Podologia

Lersandi, 14 943 19 24 42 sasoiiko@hotmail.com

Iifar kalea, 12 behea
20820 Deba
Telefonoa: 943 19 13 83
Aldizkariaren e-maila:
berriketan@zuhatza.com
Elkartearen e-maila:
koordinatzailea@zuhatza.com

Argitaratzailea:

Zuhatza Euskara Elkarte
Erredakzio taldea eta

kolaboratzaileak:

Nagore Dorronsoro, Xabier Laka,
Ina Oiartzabal, Koldo Aperribai,
Lukax Dorronsoro, Izaro
Aulestiarte, Ibon Urkia, Maite
Rodriguez, Gilen Garcia, Eider
Zulaika, Idoia Gereñu, Goizane
Aizpurua, Haika Aizpurua,
Nekane Goikoetxea, Mattin
Urbietta, Mikel Aizpurua,
Debako Gazte Asanblada,
Mendata BHI-ko prentsa tailerra.

Koordinatzailea:

Izaro Aulestiarte

Azaleko irudia:

Erredakzio taldea

Publizitatea:

Joseba Escudero eta
Koldo Aperribai
Tlfnoa.: 943 19 13 83

Logotipoaren diseinua:

Iñaki Elosua

Maketazioa:

Leire Rubio

Inprimategia:

Euskalinpri

Tirada:

1.400 ale

Lege gordailua:

SS-246-2009

ISSN 2171-7656

OHARRA:

Berriketan-ek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitz guztiek ondo identifikatuta egon beharko dute argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia, nahiz eta gero izen-abizenak soilik argitaratu. Idatziak gehienez 25 lerro izan beharko ditu eta berriketan@zuhatza.com helbidera bidali beharko dira, hilabeteko azken astelehena baino lehen.

argitaratzailea



LAGUNTZAILEAK



Debako Udala



HEZKUNTZA, HEZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SALA
Eusko Foruaren Idazkaritza



Gipuzkoako
Foru Aldundia

aurkibidea

06-07

KOLABORAZIOAK

Larrialdiko laguntza Saharan
izandako uholdeen harira;
Mattin Urbietta, (*"In amnesiam"*)



08-09

ELKARRIZKETA

Yoana Azpitarte
Berdintasun Teknikariarekin
hizketan

10

KRONIKA

Iturri ondoan



11-14

B. GAZTEA

Liburutegi Eguna, elkarrizketa
Bitor Garitaonandiari, aholkuak...



16-17


LABURRAK

Gozatuz aisialdi berria,
Udazken Kulturala Itziazaren...



18

ZERBITZUAK



Berriketan-ek ez du bere gain hartzen GUTUNAK atalean adierazitako en erantzukizunik. Eskutitzak fono zenbakia. Bidali helbide hauetara: *berriketan@zuhatza.com* edo *koordinatzailea@zuhatza.com*.

Mintzalaguna egitasmoa, martxan

Udazkenarekin batera, indartsu abiatu da Mintzalaguna egitasmoa aurten ere. Hasierako izen-emate kanpaina amaituta, ikasturte honetan hogeitaz lagunek baino gehiagok parte hartuko dute ekimenean eta hiruzpalau talde sortuko dira. Proiektuan parte hartzera animatu diren pertsonen ordutegiak kontuan hartuta, mintzalagunen saioak astean bi egunetan izango dira: astearteetan (17:30etik 18:30era) eta asteazkenetan (16:15etik 17:15era). Dena den, posible

da aurrerantzean beste talderen bat sortzea ere. Beraz, oraindik ere aukera dago izena emateko eta, ikasturtea aurrera joan ahala, lekua egingo zaie parte hartu nahi duten herritar guztiei.

Dakizuenez, Mintzalagunak euskaraz jariatuz hitz egiteko zailtasunak dituztenei euskara praktikatzeko aukera eskaintzen die. Laguntzaile baten inguruan elkartu ohi dira solaskideak, talde txikietan, giro lasaiean, herriko edozein txokotan eta gustuko edozer

eginez mihia gure hizkuntzaz astintzeko. Finean, erabiliaren erabiliaz trebatzen garelako hizkuntzetan.

Lerro hauen bitartez, euskara praktikatu nahi duten herritarrei dei egiten diegu egitasmoarekin bat egin dezaten. Animatu eta hurbildu Zuhatza elkartera! Informazio gehiagorako, deitu lasai 943 19 13 83 telefono zenbakira edo pasa zuzenean euskara elkartearen bulegotik (Ifar kale 12, behea).

Zuhatza Euskara Elkartea

Adiorik ez, Luis Mari Agirrezabala



Eskerrik asko

*Udaberriko egun batez
Kukuarekin batera
Azaldu zinen GOAZEN.
Urteetan, antzezle, idazle,
Gidari, kide eta lagun
Izan zaitugu.
Udazkeneko hego haize epelak
Eraman zaitu gugandik
beti izango zara gure artean.
Eta GOAZEN ekintzetan,
Zauden tokian zaudela,
Ziur gaude zure irribarrea
Gurekin izango dela.*

Ez adiorik, gero arte, Luismari.

GOAZ ANTZERKI TALDEA

ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta tele-

Ipuin kontalarien gutuna:

Kaixo ama, kaixo aita:

Joan den hilean, akordatzen?, ispiluen gelan izan ginen ipuinak entzuten. Ze polita den ispiluen gela, e aita? Gu, han, lurrean eserita eta zuek, berriz, aulkietan; danok ipuinak entzuteko zai-zai. Askok gustatu zitzaigun Juleren amatxoren ipuina, ez? Eta asko gustatu zitzaidan, baita ere, Martxelen aita kontatzen ikustea.

Begira, lehengo egunean pentsatzen, imaginatzen aritu nintzen: ze ondo egingo zenuketean zuek ere! Etxean

ipuinak kontatzen dizkidazuenean primeran pasatzen dut nik eta, seguru nago, nire lagunek ere zoragarri igaroko luketela. Gustatuko litzaidake Juleren amatxo bezala, edo Martxelen aita bezala, zuek ere kontu kontari ikustea. Horixe pentsatzen aritu naiz azken egun hauetan eta, lotsarik gabe, galdetu egin diot Juleri: Jule, nire amak eta aitak, zureak bezala, ipuinak kontatu ditzakete? Horixe baietz, erantzun dit duda izpirik egin gabe. Eta zer egin behar lukete horretarako? Ez dakiela, esan dit,

baina galdetuko duela eta, korri-korri-korrika atera da baten baten bila. Berehala erantzun dit. Bere amatxorekin edo Martxelen aitarekin hitz egiteko; horixe erantzun dit. Edo, bestela, web orri honetan saltseatzeko: <https://sites.google.com/site/debakokontalariak/home>.

Aita, ama, animatu. Ondo pasako genuke; ondo pasako zenukete.

Debako kontalariak

Puntuz puntu, berotasuna emanez

Debako Andre Maria Parrokiako elkartasun taldeak, beste eliz elkarte batzuekin kooperatu eta, solidaritate programak garatzen ditu (bidezko merkataritza, artisau produktuen denda...). Horrez gain, ekintza hezitzaileak burutzen ere saiatzen gara (hitzaldiak, kafe tertuliak...) gizarte ekintza desberdinak laguntzeko, hala nola Maliko San elizbarrutia eta Haitiko Mertzedariak.

Ekintza horiez gain, bai iaz eta baita aurten ere, **manta solidarioak** ekimenarekin gabilta buru-belarri. Urtean zehar mantak ehotu ahal izateko artilea

eskatu dugu fabrika desberdinetan, denda espezializatuetan, eta baita debarrei ere. Erantzuna paregabea izan da; oso eskuzabala. Artilea lortu ondoren, lana banatu dugu; taldekide bakoitzak, bere etxean, puntuz edo gantxilo, 20x20 ko laukiak egin ditugu. Lauki desberdinak elkarri josita osatu ditugu mantak. Manta horiek egiteko taldekideok herriko hainbat emakumeren ezinbesteko laguntza isila jaso dugu.

Puntuz puntu, kooperazio taldeak iaz 30 eta aurten beste horrenbeste manta egin ditu behar duten pertsonen

berotasuna eta bizitasuna emateko. Egindako manta koloretsu horiek Deban eta Caritasek Donostian duen Hotzaldin banatu dira, inork berotasunik falta ez dezan.

Hurrengo hilabeteetan ere taldea ez da geldirik egongo. Gabon inguruan, urtero bezala, denda ipiniko dugu jatorrizko herrialdeetan pertsonen laguntzeko, eta lortutako diruarekin esku artean ditugun elkartasun proiektuekin laguntzen jarraituko dugu.

*Kooperazio Taldea
Debako Parrokia*



Uholdeak desertuan

Larrialdiko laguntza sahararren kanpamenduetako uholdeen kalteengatik



Urriaren 17tik 23ra euri erauntsiek eta haize zakarrak saharar jendearen babes kanpamenduak eraso zituzten, Mendebaldeko Saharan, wilaya guztietan hondamendi izugarriak eraginez. Kalte handiak gertatu dira, bai buztin gordinezko etxe hauskorretan eta kanpin-dendetan, bai euren ondasun urrietan, elikagai erreserba apurretan barne.

Urriak 5 igandean, Saharautz Elkartasun Taldeko ekipoak eta Deban gurekin bizi diren sendi sahararrek solidaritate mahaia ipini genuen udaletxeko arkupeetan, 305 euro bildu genituelarik. Aldi berean, larrialdiari dagokionez, nazioarteko kooperazioarentzat (kolaboratzaile da Deba) doan %0,7a oinarri dela, laguntza eskatu zitzaaien udal agintariei urriaren 29ko osoko bilkuran.

Osoko bilkura horretan bertan, Hassanna Aaliaren aldeko solidaritate mozioa aurkeztu zuten; Bilbon ikasle ari zen saharar honi, El Aaiuna itzuli baino bi hilabete lehenago, biziarteko kartzela zigorra egotzi zion Rabateko Auzitegi Militar batek. Hassannak asilo politikoa eskatu zuen aurtengo urtarrilean; ukatu egin zioten, ordea, eta, urriaren 6an atxilotu egin zuten Burgosen. Sahararren eskubideen aldeko ekintzaille hau Espainiako gobernuak Marokoko Militarren esku berehala jar dezakeela ikusirik, udalkide garen indar politikook adierazpen bat izenpetu genuen, Hassannari asilo politikora-

ko eskubidea eta Sahara herriari Nazio Batuek aintzat etsia dioten autodeterminazioa aitortuz.

Urriaren 29an, CEAR-Euskadiren bitartekaritzari eta solidaritate agertze ugarietarako esker, Auzitegi Nazionalak artxibatutzat eman zuen Hassannaren kanporatzea, Espainiako Polizia Nazionalaren jokabide okerra nabarmenduz asilo politikoa eskatua duten pertsonen aurrean. Horrek etorriko zaizkigun errefuxiatuekiko mobilizatuak eta elkarlanerako prest egotera eraman behar gaitu. Munduan 60 milioi errefuxiatu daude lurralde eta herri behartsuenetan, eta, Europako Batasunak, munduko alde aberatsena eta atzerriratzeak eragiten dituzten kausen erantzukizuna dutenetakoa izanik, 120.000 pertsonen soilik zabaldu die sarrera. Zein Europako batasunetan bizi ote gara? Non geratu dira Europa zibilizatu-ko giza eskubideak?

Jasotako guztia Saharautz Mendebaldeko Sahararekiko Elkartasun Taldearen kontuan sartzen dugu: Euskadiko Kutxa: 3035 0029 61 09003645.

Saharautz Media Luna Roja Saharauirekin koordinatuta ari da bai dirua bai beste baliabideak behar larrian dauden herritarrengana hel daitezten.

DEBA SOLIDARIOA eta INTERNAZIONALISTA



MATTIN URBIETA

In amnesiam

1945eko maiatzean Frantziako iritzi publikorako institutuak (Institut français d'opini publique, IFOP) galdeketa bat egin zien paristarrei; galderetako bat zen, ea zein herrialde jotzen zuten II. Mundu Gerran Alemaniaren porrotaren erantzule nagusizat. %57ak Sobiet Errepublikan Sozialisten Batasuna (SESB) erantzun zuen, %20ak Amerikako Estatu Batuak (AEB), eta %12ak Erresuma Batua (EB). Ia 50 urte beranduago, 1994ko maiatzean, berriz egin zuten inkesta; %25ak soilik erantzun zuen SESB, %49ak AEBak jo zituen erantzule nagusizat, eta %16ak EB. 10 urte beranduago, 2004ko ekainean eginiko inkestan, joera mantendu zen: %20 SESB, %49 AEB eta %16 EB.

Gaur egun erantzunak 2004koen antzekoak izango liratekeela esango nuke, gerra amaitu eta 70 urtera. Ia Europa osoan gerraren garailetzat amerikarrak joko lirateke, nahiz eta hil ziren soldadu alemaniarren %73 inguru (lautik hiru!) fronte errusiarrean izan. Zergatik halako aldaketa 1945etik? Kontuan izanik herritarrei eginiko inkesta bat dela, hauen iritzia zerk moldatzen eta eraikitzen duen aztertu behar genuke. Hein batean, gerra bizi izan zuten gehientsuenek ez dirautelako bizirik, eta beraz eraiki dugun (edo diguten) historian oinarritzen delako gure iritzia. Gertatu zena ez da aldatu, bai ordea iritsi zaiguna, eta ez zaiguna.

Adibidez, oraindik badaude Holokaustoa ukatzen dutenak; harrigarria badirudi ere, Israelgo lehen ministroak, Benjamin Netanyahu berak, esan zuen Hitler-ek ez zituela juduak hil nahi, Alemaniatik kanpo-

ratu baizik; palestinarrak omen guztiaren errua. Ironikoa lirudike, adierazpenen larritasunagatik ez balitz. Bide batez, naziek ez zituzten judutarrak bakarrik erail kontzentrazio eremuetan; eslabiarrak, gerra-presosobietarrak, komunistak, anarkistak, ijitoak, homosexualak, elbarriak... zerrenda luzea izanagatik, ez dira beti gogoan izaten.

Datorren urtean 80 urte beteko dira Gerra Zibila hasi zutela; hasi, batzuek hasi baitzuten. Franco hil eta 40 urtera (azaroaren 20an urteurrena) zenbaitentzat ez zen "ez garaile eta ez galtzailerik" izan. "Espainiarrak soilik". *Hiritar* batek duela ez asko esandakoa. Albert du izena, eta Rivera abizena. Dagoeneko ezagun egingo zaizue gehientsuenei Ciudadan's (*Hiritarrak* katalanez) alderdiko burua. Ezagutzen ez duzenok berandu baino lehen izango duzue haren berri, hauteskundeak gainean baititugu. Horri loturik, Eusko Jaurlaritzako bozeramaile Josu Erkorekaren arabera hauteskundeen emaitza perfektua PP eta Ciudadanos-ek EAJ-rekin gehiengo absolutua izatea litzateke. Entzundakoak entzunda, lehengo lepotik burua.

Historia idatzi eta memoria eraiki egiten dira. Oraindik frankistek fusilatutakoen gorpuek areketan, bide-ertzetan badiraute, ordea, nola egin gaur egun eraikitzen ari garena memoria izan dadin eta ez amnesia? Nola idatzi herri baten etorkizuna? Zenbaiten erantzuna duela 80 urteko bera da, eta ikusitakoak ikusita, beste batzuek beren egin dute: *Una, Grande y Libre*.





Yoana Azpitarte:

“Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna denen artean eraiki beharrekoa da”

Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Kontrako Eguna da azaroaren 25a eta, data hori oharkabean pasa ez dadin, ekimen ezberdinak burutuko dira aurten ere herrian. Egitarau hori aurrera ateratzen lanean ibili ohi den Yoana Azpitarte berdintasun teknikaria elkarrizketatu nahi izan du *Berriketan*-ek oraingoan. Azaroaren 25a, berdintasunaren egoera Deban, instituzioen papera esparru horretan... hainbat kontu izan ditugu hizpide.

Noiztik zabilta berdintasun teknikari lanetan?

2008tik nabil berdintasun teknikari bezala lan egiten. 2008an Sorluzen hasi nintzen, 2011n Deban eta gaur egun batez ere hiru herritan nabil: Sorluzen, Deban eta Lasarte-Orian. Daiteke gizarte aholkularitzako langilea naiz eta herri hauetako asistentzia teknikoa Daitekeren bitartez eskaintzen dugu.

Zertan datza zehazki zure lana?

Genero ikuspegia pixkanaka udal eta herri mailan txertatzen joatean, emakumeen eta gizonen artean dauden desberdintasunei aurre egiten joateko. Hau da, emakumeen eta gizonen artean eskubide, tratatu, eta aukera berdintasuna arlo eta eremu guztietan bultzatzen joateko egiten dugu lan.

Nola? Alegia, zein bide lantzen dituzue horretarako?

Udaletxeko teknikariei, politikariei eta herriko giza eragileei aholkularitza teknikoa eskaintzen diegu udal eta herri mailan genero ikuspegia txertatzen jarraitzeko. Debako emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortze aldera, errespetua, zaintzaren etika, berdintasuna eta elkartasuna bultzatzen duten balioak bultzatu eta sustatzen ditugu, hainbat formazio, sentsibilizazio kanpaina eta ekintza ezberdinen bitartez. Debako emakumeen ahalduntzea sustatzera eta emakumeen arteko sareak sortzera eta indartzera bideraturiko ikastaroak antolatzen ditugu. Eta, era berean, emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko protokoloa kudeatzen dugu.

Zelan ikusten duzu berdintasunaren egoera Deban?

Herri bateko berdintasun egoera zein den jakiteko hiru irizpide garrantzitsu daude:

Batetik, inplikazio politikoa: ildo horretan, azken urte hauetan (2008tik) Debako Udala berdintasun politikak lantzen ibilbide bat eginez joan da.

Bigarrenik, Berdintasun zerbitzua izatea eta berdintasunean aditua den langile bat bertan aritzea: alde horretatik, 2008tik Debako Udalak berdintasun zerbitzua du eta geroztik, lehen aipatu dudan bezala, berdintasun politiketan ibilbide bat egiten joan da: 2008an Emakumeen eta Gizonen arteko

Berdintasun Diagnostika egin zuen eta 2009an Emakumeen eta Gizonen arteko I. Berdintasun Plana onartu

zuen. Harrezkero, Debako Berdintasun Planean jasota dauden hainbat ekintza eraman dira aurrera: martxoaren 8aren eta azaroaren 25aren inguruan egitarau bereziak prestatu dira, udaleko hainbat arlotan pixkanaka genero ikuspegia txertatzen joan da, genero indarkeriaren biktimak diren emakumei begirako arreta eta esku-hartze protokoloa garatu eta onartu da aurten.

Hirugarrenik, berdintasun-politiken kudeaketan egon behar duen beste egitura bat emakumeen parte-hartze espazioak edo organoak dira (Berdintasun Batzordeak, lan-taldeak, foroak, etab.). Eta eremu honetan, Debako Udalak 2008an berdintasun azpibatzaordea sortu zuen. Batzorde honek alderdi politiko ezberdinek eta Dunamis emakumeen elkarteek parte hartzen dute.

Urrats batzuk egin dira, beraz... Inguruko herriekin alderatuta, antzekoa al da hemengo egoera?

Aipatutako guztia kontuan izanik eta mankomunitatean dauden beste herri batzuekin alderatuta, Debako egoera ez dela hain txarra esan dezakegu. Baina, nire ustez hau guztia hobetu egin daiteke, aipatu ditudan egiturak indartuz -batez ere ber-

“Zoritxarrez, Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna aldarrikatzea beharrekoa da gaur egun, baina horrekin ez da nahikoa”

dintasun zerbitzua, berdintasun azpibatzordea eta emakumeen parte-hartzea eta emakumeen arteko sareak.

Badator Azaroaren 25a. Beharrezkoa edota nahikoa al da egun bakarreko aldarrikapena?

Zoritxarrez, gaur egun Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna aldarrikatzea beharrezkoa da, baina horrekin ez da nahikoa. Horregatik, egun hori aldarrikatzeaz gain, berdintasun zerbitzutik beste ekintza mota batzuk eramaten ditugu aurrera genero indarkeriaren aurkako kultura sortze aldera, hau da, sexuen elkarbizitzarako kultura sortze aldera.

Instituzioek nahikoa egiten al dute berdintasunaren borrokan?

Orokorrean ezetz uste dut. Adibidez, krisiarekin, mankomunitateko hainbat berdintasun zerbitzu desagertu egin dira eta beste batzuek sufritu izan dituzten murrizketak oso handiak izan dira. Orokorrean, berdintasunari, zeharkakoak diren beste gai batzuei bezala, ez zaio merezi duen garrantzia ematen. Alde horretatik, inplikazio politikoa falta dela iruditzen zait.

Martxoaren 8aren bueltan, genero indarkeriaren edota sexu erasoen biktimak diren edo izan diren emakumeei arreta hobe emateko erakundeen arteko koordinazioarako Debako protokoloa sinatu zen. Urrats garrantzitsua izan da?

Ba bai, oso garrantzitsua izan da, ordutik hona erakundeen arteko koordinazioa hobetu egin delako eta bertan, koordinazio mahaian, parte hatzen dutenek oso ondo baloratzen dutelako sortutako mahaia.

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasun eza; Indarkeria matxista... Nora jo dezakete gai honen inguruko informazioa edo laguntza jaso nahi duten pertsonak?

Lehen aipatu dudak bezala, erakundeen arteko koordinazio mahaia bat dugu eta bertan parte hartzen dute Eibarko Ertzaintzak, Deba eta Itziarko osasun zentroek, Mendaroko ospitaleak, Debako udaltzaingoak, Debako gizarte zerbitzuek eta berdintasun zerbitzuak. Beraz, norbaitek honen inguruko informazioa nahiko balu aipatutako zerbitzuetan lor dezake.

Telefono interesgarriak:

SOS Deiak: 112; Eibarko Ertzaintza: 943 53 17 00; Debako Udaltzaingoa: 943 19 28 40; Debako Gizarte Zerbitzuak: 943 19 29 33 (astelehenetik ostiralera 8:00etatik 15:00etara); Debako Berdintasun Zerbitzua: astearteetan, bi astetik behin, 9:00etatik 17:00etara; 24 orduz telefono arreta zerbitzua: 900 84 01 11/ 016 telefono zenbakia.

Azaroaren 26an hitzaldi bat egongo da "Zer egin emakumeen aurkako indarkeriaren aurrean?" izenburupean. Zer egin, Yoana? Zehaztuta daude bide horretan eman beharreko urra-



PROFILA: Yoana Azpitarte

"Emakume feminista bat naiz, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna (berdintasuna ezberdintasunean) aldarrikatzen duena nire testuinguru pertsonalean eta nire lanaren bitartez. Zarautzen jaio nintzen orain dela 36 urte eta han jarraitzen dut bizitzen"

tsak edo lan leerroak?

Gaur egun, indarkeria matxistako egoera batetik irteko baliabide eta zerbitzu ezberdinak eskaintzen dira. Beraz, azaroaren 26an, erakundeen arteko mahaian parte hartzen dugun kide batzuek azalduko duguna horixe da: indarkeria matxista sufritzen ari den emakume batek zer egin dezakeen egoera horren aurrean, zeintzuk diren eskaintzen diren baliabide eta zerbitzuak eta nora jo dezakeen.

Herritarrentzako mezurik? Beste zerbait gehitu nahi?

Hemendik, debar guztiak animatzen ditut azaroaren 25aren bueltan antolatu ditugun ekintzetan parte hartzera. Hortaz gain, hurrengo urtera begira berdintasun batzordea indartu nahiko genuke, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna denen artean eraiki beharreko gaia delako. Beraz, Udaletik gonbidatu nahi zaituztegu berdintasun batzordean parte hartzera, guztion ekarpenak beharrezkoak eta interesgarriak direlako sexuen elkarbizitzarako kultura sortze horretan.

Azaroaren 25aren bueltan antolatutako egitaraua:

Debako udaletxeko berdintasun sailak hainbat ekimen antolatu ditu Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Egunaren inguruan. "Ekimenekin gogorazi nahi dugu Indarkeria Matxista emakumeen eta gizonen artean dagoen berdintasun ezaren adierazpen larriena dela eta mundu guztietako tokietan gerta daitekeela, adin guztietan, maila sozial guztietan, baita kultur agerraldi guztietan ere (telebista,

zinea, festak, literatura...)".

***Azaroak 20, ostirala:**

"Beldur Barik" lehiaketaren sari banaketa ekitaldia eta luncha. 20:00etan, Agirre jauregiko ispiluen gelan.

***Azaroak 21, larunbata:**

Emakumeei zuzendutako Dantza Eta Gorputz Adierazpen Tailerra. Agirre jauregiko dantza gelan (10:30-13:30).

Dantza Mugimendu terapeuta: Uxue Pascual Esnaola.

***Azaroak 25, asteazkena:**

Emakumeenganako indarkeriaren aurkako agerraldia. 19:00etan, plaza berrian.

***Azaroak 26, osteguna.**

Hitzaldia: "Zer egin emakumeen aurkako indarkeriaren aurrean?". 19:00etan, Agirre jauregiko ispiluen gelan.

Hizlariak: Indarkeria matxistaren biktimak diren emakumeei arreta hobe emateko Debako erakundeen arteko koordinazioarako mahaia.

Iturri ondoan



Hauek izan dira, aurten, ITURRI ONDOAN egitasmoaren barruan antolatu ditugun ekitaldiak:

Uztailak 10: D'Capricho

Uztailak 17: Gilkitxaro (8 begi)

Uztailak 24: Kukai (Gelajauziak)

Irailak 11: Herritarrak-Ahots pianoz (Debako irulea)

Irailak 18: Herritarrak-Begiradak

Irailak 25: Herritarrak-Ez dok amairu (Sentikaria)

Urriak 3: Herritarrak-Kulunka (Kabaret)

Uztail eta irail/urrian antolatu ditugun kultur jarduera horiek honako helburuak izan dituzte:

1) Uda partean ezkutuagoan gelditzen den euskara kalera ateratzea eta, kultur jardueren bitartez, herritarrei tarte atseginak eskaintzea (euskararekiko atxikimendua, prestigioa eta erreferentzialtasuna lortzen saiatuz).

2) Herritarren artean harreman berriak sortzea, sareak eraikitzea, harreman-hizkuntza modura euskara finkatuz.

3) Herritarren proposamen/nahi artistikoei bide ematea, udaletik bertatik jarduera desberdinak proposatuz edo herritarrengandik jasotakoak

aurrera eramaten saiatuz.

Eta Euskara eta Hezkuntza Batzordean egindako BALORAZIOA honako hau da:

- Kalitatea: emanaldien kalitatea ona izan da oro har.

- Anitza: antzerkia, musika, irudia, dantza, literatura,...

- Herritarren partaidetza: 4 proiektu abiatu dira herrian (Ahots pianoz, Begiradak, Ez dok amairu eta Kabaret). 10, 21, 34 eta 20 parte hartzaile zuzen. Partaideengana jotzeko erabili diren irizpideak: adin diferenteetakoak izatea, neska-mutilen arteko oreka gordezea, inguru desberdinetako jendea izatea,...

- Ikus-entzule kopurua: ikus-entzuleak asko, batez ere herrikoien emandietan.

- Tokia: ITURRI ONDOA (eliza-aren kanpoaldea zein barrualdea) toki aproposa da. Markoa polita eta goxoa. Hasierako proposamena formatu txikia zen arren, pare bat jarduera handitu egin dira eta haiantzako txiki geratu zaigu. Zumardira pasatu behar izan dira ekin-tza batzuk.

- Eguraldia: kaleko ekintzak antolatzea da ITURRI ONDOAN programaren oinarria. Edozein ekintzatarako herritarren inplikazioa, lana eta ahalgina lortu eta gero, eguraldiaren menpe egon beharrak ziurgabetasuna dakar. Horrek egitasmoa birplanteatu beharra ekartzen du: edo hasieratik aterpea aurreikusi (karpa, azpiegitura berriak,...) edo formatu txikietara bueltatu, euria egiten duenean elizatarira sartzeko modukoak antolatuz.

- Diru kontuak: Ekitaldiak kalean izateak zaildu egiten du diru bilketa (sarrerarik ezin da ipini). Sarrera ipintzeko itxi egin behar dira ekitaldiak. Beste aukera bat da ITURRI ONDOAN egitasmoa aurrera ateratzeko herritar eta erakundearen babesletza sustatzea aurrez. Hausnartu beharra dago horien guztien inguruan: formatu txikiak/handiak, aterpea/zerupea, sarrera/babesletza,...

Datorren urteari begira, ideia berriak, proposamenak, parte hartzeko modu diferenteak,... planteatzera dei egiten dizuegu. Gogo onez entzungo ditugu, ideiak agortzen ari zaizkigu eta.

Debako Udala



SUKIA

Fruitu eta Barazkiak

Lersundi, 13
Tel.: 943 192 386
Deba (Gipuzkoa)



ASKETA, S.L.

ERAIKUNTZAKO ZERBITZU INTEGRALA

OFICINAS Y EXPOSICION:

Maxpe, 3-5 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)
Tel.: 943 191 952 - Faxa: 943 192 460
E-mail: asketa@telefonica.net
www.asketa.net

ALMACÉN:

Parque Empresarial Esser - Pabellón NN 8-9
20850 MENDARO (Gipuzkoa)

K21
KALITATEA
Enpresa Registrada N° 2 / 05 / 049
NIVEL 2

BERRIKETAN GAZTEA

2015eko azaroa
Mendata BHI-ko Prentsa Tailerrea Sortua.

Liburutegiaren Eguna Mendata ikastetxean

Urtero bezala, aurten ere Liburutegiaren Eguna ospatu da Mendata ikastetxean, Institutuko Liburutegiko Batzordeak antolatuta. Liburutegiaren Eguna pasa den urriaren 23an ospatu zen eta egun horretarako egitarau berezia prestatu zen. Alegia, ikasleek hainbat ekintza egin zituzten:

- 1. mailakoek liburutegia ezagutzeko aukera izan zuten, beraien lehenengo urtea baita ikastetxean. Horretarako, tutoretzako orduak izan zituzten.

- 2. mailakoek "Alfabetotik liburura" jokoaz disfrutatu zuten, Liburuz Blai arloko orduan.

- 3. mailakoek "ginkana" moduko jolasa egin zuten, Gaztelaniako klaseetan.

- 4. mailakoek, bestetik, Altxorraren Bila jolasa eraman zuten aurrera liburutegian. Horretarako, Liburuz Blai arloko klaseak hartu zituzten.

Ikasleek ez ezik, irakasleek ere izan zuten aukera egun hartaz disfrutatzen. Izan ere, urriaren 23an, klase bat liburutegian ematera gonbidatuta zeuden, bertan dauden baliabideei edo tokiarri onura atera ahal izateko.



Liburuak, gure aberastasuna



**JOSE A. GALDONA
AIZPURUA**

HORTZ-SENDAGILEA
Odontologia orokorra,
kirurgiak eta implanteak

Hondartza Kalea, 20 - behea
Tel.: 943 192 819
20820 Deba



English Academy

**NORTH
STREET
ENGLISH**



Telf. 675 714 031 - Ifar kale, 15 - Deba



ELKA RRIZ KETA



Bitor Garitaonandia, surflaria:

“Lau urterekin hasi
nintzen surf egiten”

Oraingo honetan, Mendata Institutuko 2. mailako Bitor Garitaonandia ikasleari egin diogu elkarrizketa. Berak praktikatzen duen kirolari buruz joan gatzazkio galdezka.

Noiz hasi zinen surf egiten?

Lau urterekin hasi nintzen surf egiten, gutxi gorabehera.

Zergatik hasi zinen surfean?

Txikitan jendea uretan ikusten nuelako eta inbidia ematen zidalako hasi nintzen.

Zein da zure surflari gustukoena?

Kelly Slater.

Beste kirolen bat egiten al duzu?

Iaz futbolean jokatzeko nuen, baina orain ez dut beste kirolik egiten.

Txapelketetan parte hartzen al duzu?

Bai, Gipuzkoakoan, Euskal Herrikoan, tokian tokiko txapelketetan...

Eta irabazi al duzu sekula txapelketarik?

Bai, baina oraingoz Debako txapelketa bakarrik irabazi dut.

Beste hondartza edo tokiren batera joan al zara surf egitera? Nora?

Bai, Landetara (Hossegor), Zarautzera... Toki askotara joaten naiz.

Zuretzat, zer da surfa: hobby bat ala zerbait gehiago?

Oraingoz hobbya besterik ez da, baina etorkizunean nire asmoa surfetik bizitzea da.

KIROLA

Kirola osasungarria dela kontuan hartuta, oraingo honetan gai horri buruzko inkesta egin diegu bigarren mailako ikasleei. Beraiek gustuko dutena kontatu digute:

- 1.- Kirolik egiten al duzu? Zein?
- 2.- Zein kirol mota gustatzen zaizu?
- 3.- Zein da zure kirolaririk gustukoena?
- 4.- Txikitatik egiten al duzu kirola? Zein?
- 5.- Ezagutzen al duzu kirolari famaturik?



Ane Txurruka:

- 1.- Bai, egiten dut. Futbola.
- 2.- Atletismoa, futbola eta saskibaloia.
- 3.- Carlos Vela.
- 4.- Bai, futbola.
- 5.- Ez.



Endika Ruiz:

- 1.- Bai, futbola.
- 2.- Futbola eta eskubaloia.
- 3.- Iñaki Williams.
- 4.- Bai, futbola.
- 5.- Ez.



Ibai Ponce:

- 1.- Bai, futbola eta triatloia.
- 2.- Igeriketa.
- 3.- Iñigo Martinez.
- 4.- Bai, futbola eta igeriketa.
- 5.- Bai, Jagoba Arrasate.



Urko Azkoitia:

- 1.- Bai, futbola eta pilota.
- 2.- Futbola, pilota eta atletismoa.
- 3.- Robert Lewandowski.
- 4.- Bai, futbola eta pilota.
- 5.- Bai, Asier Riesgo.




Josu Salegi:

- 1.- Bai, futbola.
- 2.- Futbola eta bodyboard-a.
- 3.- Mikel San Jose.
- 4.- Bai, futbola.
- 5.- Bai, Asier Riesgo.



Jone Gomez:

- 1.- Bai, waterpolo.
- 2.- Igeriketa eta futbola.
- 3.- Jennifer Pareja.
- 4.- Bai, futbola eta igeriketa.
- 5.- Ez.



Jon Txurruka:

- 1.- Bai, igeriketa.
- 2.- Igeriketa.
- 3.- Michael Phelps.
- 4.- Bai, igeriketa.
- 5.- Bai, Markel Bergara.



Eneko Arriola:

- 1.- Bai, futbola.
- 2.- Futbola eta bodyboard-a.
- 3.- Thiabaut Courtois.
- 4.- Bai, igeriketa eta futbola.
- 5.- Bai, Mike Stewart eta Tanner Mcdaniel.





AHOLKUAK ETA BITXIKERIAK

AHOLKUAK

Nola prestatu azterketa bat:

Azterketa bat ondo prestatzeko edukiak argi eta garbi jakitea beharrezkoa da. Ikasteko modu honekin erraz jakin dezakezu benetan zerk duen garrantzia eta zerk ez. Garrantzitsua da zer motatako azterketa den jakitea: testa, praktikoa, teorikoa, ahozkoa...

Azterketa bat nolakoa den jakinez gero, modu batean edo bestean ikas dezakezu: memorizatuz edo buruz ikasiz, irakurriz, datu guztiak ikasiz, garrantzi gutxikoak barne...

Ondoren, ikasteknika hauek praktikan jarri:

- Ikasi behar denaren irakurketa azkarra.

•Bigarren irakurketa motelagoa eta sakonagoa egin, ideia nagusiak azpimarratuz, oharrak idatziz...

- Laburpena egin.
- Eskema egin.

•Errepaso orokorra egin: azpimarratutakoaren eta laburpenaren irakurketa eta eskemen azken errepaso egin, ideia nagusiak hobeto ikasteko.

Teknika hauek jarraituz gero, emaitzak eta notak hobeak izango dira.



Azterketa bat nola egin:

- Beti kontuan izan azterketarako duzun denbora.
- Galdera guztiak gainetik irakurri.
- Poliki-poliki irakurri galdera bakoitza, galdetzen duena kontuan hartuz.
- Hasi ondo dakizkizunak erantzuten.

•Test moduko azterketa bada, ziur dakizkizun galderak erantzun. Ondoren, dudazkoak erantzuten saiatu.

•Erantzunei eta ortografiari azken errepaso eman, entregatu baino lehen.

- Zorte on!

BITXIKERIAK

Guinness marka berria: 28 emakume, Mini Cooper baten barruan

la edozer gauzak dauka egun berezi bat egutegian. Azaroan, esaterako, Guinness errekor entzutetsuen munduko eguna ospatu zen, eta, nola ez, marka edo errekor berriak ezartzen ahaleginduz ospatu zuten herrialde askotan.

Baina errekorrik bitxienetako Londresen lortu zuten: 28 emakume Mini Cooper auto txiki batean sartzea lortu zuten, denak batera, noski. Are gehiago, bigarren marka bat ere lortu zuten, 23 emakume Mini Classic batean, Cooperra baino txikiagoa

den autoan, sartuta.

Aurreko marka 27 emakumek lortu zuten, eta, hori gainditzeko, gimnasta talde bati aurkeztu zieten erronka. Gimnastek ez zuten zalantzarik izan eta euren gorputzak era harraroenetan tolestuta lortu zuten errekorra. Orotara, 18 minutu behar izan zituzten.

Lorpenak bultzatuta, bigarren erronka bati ekin zioten: Mini Classic batean 23 emakume sartzea. Eta lortu ere, lortu zuten. Zorionak!



LAGUNTZAILEAK:



BABESLEAK:



Debako Udala

EGILEAK: Ane Ladera, Lara Egaña, Jon Osa eta Haritz Alberdi



PRENTSA TALERRA 2015-2016

Ane Amutxastegi
Elene Arratibel
Ane Ladera
Lara Egaña
Haritz Alberdi
Julen Ayastuy

Jon Muñoz
Naia Zabala
Ane Larrañaga
Iraide Udabe
Idrissa Sene
Jon Osa

Koordinatzailea: Tomas Ramos

Zabalik dago udal harrera bulegoa Itziarren

Udal harrera berriak pasa den urriaren 1ean ireki zituen atek Itziarren. Itziarko Auzo Udalaren eta Debako Udalaren arteko elkarlanaren fruitu, zerbitzu horrek hainbat tramite eta konsulta hurbiletik burutzeko aukera eskaintzen die herritarrei.

Bulegoan burutu litezkeen tramiteak honakoak dira, besteak beste:

-Erregistroa: Udalari zuzendutako dokumentuak aurkeztea, edota Udalak herritarrei zuzendutako jakinarazpen eta dokumentuak batzea.

-Gipuzkoako Foru Aldundiari zuzendutako dokumentuak erregistratzea, erakunde horrekiko lankidetzatza baitu bulegoak.

-Biztanle errolda: Izen-emate eta aldaketak, ziurtagiriak eta abar.

-Udal eta beste administrazioen informazioa.

-Aipatutako baliabideez gain, fotokopiak egiteko aukera ere eskaintzen zaie herritarrei.

“Honenbestez, martxan da Itziarko Auzo Udalaren Txostenean jasotako zerbitzuetako bat”, jakinarazi du Auzo Udalak prentsa ohar baten bitartez.



Itzi Aizpurua

Burugorri eraikinaren behe solairuan kokatuta dago bulego berria. Goizeko 8:30etik 12:30era egoten da zabalik, astelehenetik ostiralera, eta hauxe da bertako telefono zenbakia: 943 19 92 55.

“Zerbitzu baliagarri hau” erabiltzeko deia egin die Itziarko Auzo Udalak herritarrei.

Ikuskaritza prozesu bat abiatu du Debako Udalak

Debako Udalak ikuskaritza prozesu bat hasi du, “Udalaren gardentasuna erakutsi” nahian. Horretarako, BETEAN enpresari Udalaren ondare eta aurrekontuen gaineko ikuskaritza-txosten bat idazteko eskatu dio eta txostena abendurako izatea aurreikusten da.

Deba.eus atarian emandako informazioaren arabera, “auditoria honen xede nagusia herritarrei zin egindako gardentasuna bermatzea da, auditoreak bere lana bukatzean idatziko duen txostena ezagutzera emanez”. Prozesu honen bitartez, modu zehatzago batean, honako hauen berri eman nahi dute udal agintariek:

- 2014 ekitaldiko ondare-egoera.
- 2014 ekitaldiko aurrekontuen likidazioa.
- 2015eko abenduaren 31ko aurrekontu-egoeraren aurreikuspena.

Enpresa honek ikuskaritza-lanak abendurako bukatuko dituela aurreikusten da. Eta, hori hala, gabonetarako behin betiko auditoria-txostena izango du Udalak eskuartean. Auditoria lanaren guztizko kostua 12.100 eurokoa izango da (BEZa barne).

Emaitzak dituztenean, txostenaren berri emango dutela adierazi dute; bai Udalean ordezkaritza politikoa duten alderdiei, eta baita herritarrei ere.

Ertzaintzak landa-patruila jarri du martxan Debabarrenean

Eibarko ertzain etxeko agenteak Debabarreneko landa-ingurua patruilatzen ari dira, landa-inguruko behar eta eskakizun bereziak erantzute aldera. Ertzaintzak prentsa ohar baten bitartez jakinarazi duenez, joan den urriaren 26an jarri zuen martxan landa-patruila. Harrezkero, agenteak uniformeak jantzita eta Ertzaintzaren bereizgarriak dituzten ibilgailuetan ari dira patruilatzen. Euren zeregin nagusia hirietatik aldentuta bizi direnei Ertzaintzaren zerbitzua gerturatzea da eta, horretarako, baserrietara eta isolatutako etxeetara bisitak egingo dituzte, bizilagunekin hitz egiteko. Herritarrei zerbitzu eraginkorra emateko asmoz, landa-inguruko patruila Gipuzkoako eta Bizkaiko foru aldundietako basozainekin lankidetzan arituko da.



Gozatuz aisialdi berria



Urrian hasi dira, ikasturte berrirako, Udalak eta guraso elkar- teek elkarlanean eskaini dituzten eskolaz kanpoko jarduerak. GOZATZEKO jarduerak eskaintzen ditugu, lasai eta inolako emaitzaren bila ibili gabe disfrutatzeakoak. Bi talde sortu dira sukaldaritzan; beste bi antzerkian; bat argazkilaritzan eta hiru Kuadrillategin. Guztira, 86 partaide eta 99 matrikula. Horietatik 58 DBHkoak; 26 LHkoak eta 2 nagusiak. Generoari dagokionez, datuak hauek dira: sukaldaritzan 16 neska eta 5 mutil; antzerkian 25 neska; argazkilaritzan 11 neska eta mutil 1; Kuadrillategin 22 neska eta 19 mutil. Proiektu honen erdia pasatxo (%53,41) ikasleen kuotetatik lortzen da eta gainerako %47 udalak finantzatzeko du.

Bestalde, jarduera horiek aurrera eramateko, herriko zenbait eragileren prestutasuna aipatu behar da. Sukaldaritzan

ikastarorako, adibidez, Zokoa elkarteak lagatzen digu lokala; antzerkirako Goaz antzerki taldeak; argazkilaritzarako Mendata ikastetxeak eta Kuadrillategirako Udalak (Osioko lokalak eta kiroldegia). Eskerrak eman nahi dizkiegu, beraz, elkarte horiei guztiei jarduerak ahalik eta egokien emateko azpiegitura lagatzearen.

Jarduerak arrakasta izan zuten iaz eta horren erakus- garri da, dudarik gabe, aurrean, hiru talde gehiago izatea. Aurrera begira, jarduera berriak zabaltzea baino, horiek den- boran irautea izan liteke erronka, jarduera horiek herriko dinamikan, kaleko bizitzan,... ekar ditzaketen kultur aukerak sendotu eta berriak zabaldu daitezkeen, herriaren aberasgarri. Nolanahi ere, aurtengo baloratu, ekonomikoki zein azpiegi- tura aldetik dauzkagun aukerak aztertu eta datorren ikastur- tera begirako planteamendua zehaztu beharko dugu eragile guztion artean.

Debako Udala



Alzheimerrari buruzko aldizkaria aurkeztuko dute

Datorren azaroaren 27an "Oroimenik gabe, nor- tzu gara? Deba eta Itziarren Alzheimerra duten gaixoen eta senitartekoen bizipenak" izenburu- ko aldizkaria aurkeztuko dute Zaharren Biltokian. Jose Luis Albizu, Lukax eta Nagore Dorransoro dira egileak eta Jose Luis Aperribairen azalarekin jantzi dute argitalpena.

Euskaraz eta gaztelaniaz idatzitako aldizkariaren helburu nagusiak hauek dira: "alz- heimerrari buruz debarrak eta itziartarrak sen-

tsibilizatzea, gaitzaren lehen ezaugarriak eta garapena ezagutzea -baita oinarrizko zainketak ere-; eta gaitzei, gaixoei eta hauen sendikoei buruzko aurreiritziak ezabatzen joatea; ez, ordea, alzheimerrari buruzkoak bakarrik, par- kinsonari eta, estigmatizatu ez arren, ezkutatzen ditugun beste batzuei buruzkoak ere". Arbil Elkarteak antolatuta, aurkezpena azaroaren 27an izango da, arratsaldeko 18:00etan. Aldizkaria bi euroan eros daiteke.



6.000 euroko diru-laguntza emango du Tene Mujika Bekak

Debako Udalak eta Elkar argitaletxeak, Euskal Herriko histo- ria hurbilaren ezagutza zabaltzeko eta gure literatura aberas- teko asmoz, X. Tene Mujika beka sortu dute, 6.000 euroko diru- laguntza emango duena.

Gure herriaren azken 60-70 urteetan izandako pertso- na, talde, gertakari edo mugimenduren bati buruzko liburuak aurkez litezke (biografiak, kronikak, erreportajeak, elkarrizke- tak...); lanak jatorrizkoa eta euskaraz sortua izan beharko du, eta aurrez argitaratu nahiz saritu gabea.

Bekaren antolatzaileek azaldu dutenez, deialdira aur-

kezten diren proiektuak aztertzean, bi ezaugarri hartuko dira batez ere kontuan: testuaren beraren kalitate eta gaiaren inte- resa. Proiektuak 2015eko abenduaren 11ra arte bidal daitezke, helbide honetara: artxiboa@deba.eus. Gero, Alberto Barandiaranek, Idurre Eskisabelek eta Elixabete Garmendiak osatutako epaimahaiak, jasotako lan guztiak aztertu eta haien arteko bat izendatuko du irabazle 2016ko urtarrila amaitu baino lehen.

Debako Udalaren webgunean (www.deba.eus) kon- sulta daitezke bekaren oinarriak.

Kultur egitarauu bete-betea prestatu dute Itziarren abendua bitarte

Izaera ezberdineko ekimen ugari antolatu dira Itziarren Udazken Kulturalaren baitan. Itziarko Auzo Udalaren babesean, hainbat eragilek elkarlanean antolatuta dute azaroaren 6an abiatu eta abenduaren 28an amaituko den kultur egitaraua. Hitzaldiak (“Herrigintza/irrigintza”, Mendatako zentral nuklearra...), dokumentalen proiektzioak, Burugorri txukuntzeko auzolan hitzorduak, ikuskizunak, tailerrak, mendi ibilaldiak, musika kontzertuak... prestatu dituzte asteotarako. Besteak beste, egitarauaren baitan daude, adibidez, azaroaren 27an (ostirala) 20:00etatik aurrera burutuko den Gaztainerre Jana -Andutz Biltokiak antolatuta- edota Lasturren hilaren 28an egingo den hitzordua: Taloa (21:00etan) eta antzerkia (22:00) uztartuko ditu -“Putisen guardasola” eskaini dute Inazio Tolosak eta Ramon Agirrek-. Egitarauaren inguruko informazio gehiagorako jo Itziarko Auzo Udalera.



Abian dago Animadeba Gortina lehiaketa

Debako Udalak VII. Gortina lehiaketa abiatu du eta lan saritua Animadeba 2016 animazio zinema jaialdia iragartzeko erabiliko da. Nahi duenak parte har dezake lehiaketan, jaioterri eta bizilekuak direnak direla, eta nahi adina gortina aurkez daitezke, edozein animazio teknika erabilita. Beharrezkoa izango da gortina guztiek ANIMADEBA 2016ko logotipoa edukitzea eta hori bera Animadebaren web orrian deskargatu ahal izango da: www.animadeba.com.



Atari horretan daude lehiaketaren oinarri guztiak ikusgai. Lanak aurkezteko epea abenduaren 13an amaituko da (eguerdiko 14:00etan).

Maite Etxeberria nesken binakako pala txapelketa

Aurten, 4. aldiz, nesken binakako pala txapelketa jokatzen ari da Deban; 16 bikotek eman dute izena. Horietatik gehienak Debakoak izan arren, badira inguruko herrietatik etorri direnak ere: bat Mutrikutik eta beste lau Elgoibartik. 6 partida jokatuko dira igandero goizeko 10:30ean hasiz eta hiru asteazkenero, iluntzeko 8etan hasita. 16 bikoteak bi taldetan banatu dira eta lehenengo fasean euren artean arituko dira lehian; bikote bakoitzak 7 partida jokatuko ditu, beraz, bere taldeko gainerako bikote guztiekin. Talde bakoitzeko lau bikote onenak pasako dira hurrengo fasera, hau da, finalaurdenetara. Azken partidak abenduan jokatuko dira: finalaurdenak hilaren 16an, finalerdiak 18an eta finalak 19an.

Debako eta Itziarko 50 bat lagun Behobia-Donostian

Behobia-Donostia lasterketaren 51. edizioa izan da aurtengoa. Azaroaren 8an burutu zen proba, bero sargori bati aurre eginez, eta guztira 26.622 parte-hartzailek lortu zuten helmugara iristea. Horietatik, 45 bat debarrak izan ziren eta beste zazpi bat itziartarrak. Iñaki Aristi seniorra izan zen azkarrena gure ordezkarien artean (1:23:53 denbora egin zuen), eta Ainhize Manzidor izan zen azkarrena beteteranoen kategorian, emakumezkoetan: 1:48:07. Sailkapen orokorra ikusteko aukera dago interneten: www.behobia-sansebastian.com.

“Dispertsiorik ez! Galarraga Euskal Herrira!”



Azaroaren 7an (larunbata), hainbat herritarrok, pintzelak eskuetan harturik, irudian ikusten den mural ederra margotu genuen dispertsioaren aurka gaudela adieraziz.

Presoak etxetik ehunka kilometrora urruntzea eta sakabanatzea giza eskubideen aurkakoa da. Espainiar epaitegiek beste herrialde batzuetan betetako kartzela zigorren kontaketa zehazten duen Europako Erabakia beteko balute, preso batzuk jadanik etxean edo askatzear litateke. Preso dauden



gaixo larriek legez etxean behar lukete. Salbuespen neurriak indargabetezko eskatzen jarraituko dugu.

Sarea osatzen jarraituko dugu, Sare horri esker baztertuko ditugu bidean jarriten dizkiguten harri guztiak eta traba guztien gainetik aurrera egingo dugu.

Dispertsiorik ez! Galarraga Euskal Herrira.

Debako Sare



Agenda

Azaroak 20, ostirala

-8:30. Kalez Kale txistulari taldearen eta soinu taldearen **diana**.
-16:00. Musika ikasleentzat merendola, Santa Zezilia ospatze-ko, Agirre jauregiko plazan.

Azaroak 21, larunbata. Santa Zezilia bezpera

-13:00. Debako txistularien **kontzertua**.
-20:00. **Debabrass** taldearen kontzertua elizako atarian.

Azaroak 22, igandea. Santa Zezilia eguna

-Goizean, Gaiteroen **kalejira**. 12:30ean, Banda Gaztearen kalejira eta 13:30ean Aitzuri Abesbatza kaleetan zehar.
-8:30. **Mendi irteera**. Burdin Kurutz M.T. eta Luzaro ikastetxe-ak antolatuta. Arantzazu-Arriurdin-Biozkornia-Brinkola.

Azaroak 25, asteazkena

-**Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna**. 19:00etan elkarretaratzea, Foruen plazan. Egun honen bueltan antolatutako egitarau osoa aldizkari honetako 9. orrialdean ikus daiteke.

Azaroak 27, ostirala

-19:30. **Azken ostirala**. Euskal preso eta iheslari politikoen eskubideen aldeko elkarretaratzea. Foruen plazan.
-**Black Friday**. Deskontu berezien eguna, Debalai Merkatarien Elkarteak antolatuta. 100 euroko sei bono zozketatuko dira...

Azaroak 28, larunbata

-13:00. Debako Musika Bandaren **kontzertua** elizako klaustroan.

Azaroak 29, igandea

-**Ipuin kontaketak**, Agirre jauregiko ispiluen gelan.
17:00etan: 3-7 urteko haurrentzat/18:00etan: 7-12 urtekoentzat.

Abenduak 3, osteguna

-**Euskararen Nazioarteko Eguna**. Egitarau berezia antolatu da (ikus aldizkariaren kontrazala).

Abenduak 19, larunbata

-17:00. **Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako finala**, Ilunben. Sarrerak eta informazioa: www.bertsozale.eus.

Nordic Walking

-Azaroaren 22an (igandea), Ibilketa Nordikoko hastapen ikastaroa eskainiko du Andoni Urkiolak. Goizeko 10:00etatik 12:00etara bitartean burutuko

da ikastaroa. Informazio gehiagorako edo izena emateko, idatzi andoni@ekinkirola.com helbidera edo deitu 645714062 telefono zenbakira.

Azaroa Abenturaz Blai

-“Azaroa Abenturaz Blai” lelopean, Zuhatza Kolore Anitz Aisialdi Taldeak hiru irteera antolatu ditu aurten. Hilaren 14an Irrisarri Landera joan ziren lehen eta bigarren mailako ikasleekin, azaroaren 21ean Hontza Extrem Parkea bisitatu dute hirugarren eta laugarren mailakoekin, eta azken irteera hilaren 28an burutuko dute. Larunbat horretan ere Irrisarri Land abentura parke-



ra joango dira egunpasa, bosgarren eta seigarren mailako haurrekin.

Ikastaroak

-**KZguneak** goizeko ordutegia izango du abenduan (11:00etatik 13:00etara). Hainbat ikastaro eskainiko dira, tartean oina-

rrizko internetari buruzkoa. Informazio gehiagorako: www.kzgunea.net edo 943 02 36 29 telefono zenbakia.

Arte erakusketa kolektiiboa Arrasaten

-Arrasateko Kulturate guneak arte erakusketa kolektibo bat hartuko du azaroaren 13tik abenduaren 19a bitarte, “Begotik” izenburupean. Parte

hartzen duten artisten artean Deban ezagun ditugun hainbat sortzaile daude, hala nola Baroja Collet, Jose Felix Igartua edo Marino Plaza.

ZAINTZAKO BOTIKA

Egunez, 09:00etatik 22:00etara



Zalduegi: **azaroak 23, 24, 25, 26.**
abenduak 11, 12, 13.

Burgoa Zuazo: **azaroak 27, 28, 29.**
abenduak 7, 8, 9, 10.

22:00etatik 09:00etara, Eibarren Azkue botika zabalik. Torbio Etxebarria, 4 (943 20 23 44)

DEBAKO BOTIKAK

ZALDUEGI: 669 262 201
BURGOA ZUAZO: 667 338 890
Larunbat goizetan beti bat irekita:

ZALDUEGI: azaroak 21
abenduak 12 eta 19

BURGOA ZUAZO: azaroak 28 / abenduak 5

9:30 - 13:30

Argazkilaria
Ander Salegi

(argazki erroportaiak, photoshop-eko erretokeak...)

Email: andersalegi@gmail.com

Tlf: 685 703 843

Jari zure publizitatea
Berriketan aldizkarian!


Zuhatza

943 191 383
berriketan@zuhatza.com



GENOVEVA
Arraindegia

Ostolaza Kalea 25.
20820 DEBA (Gipuzkoa)
Telf.: 943 191 818



ZALBURDI

Plaza Arakistain - DEBA Tel.: 943 19 20 03

Mikel

- Iturgintza
- Berogintza
- Gasa
- Altzariak
- Osagarriak

Mobila: 699 975 206
Tel.-faxa: 943 191 774
Hondartza, 10 - behea
20820 DEBA (Gipuzkoa)
mikeliturgintza@euskalnet.net
www.mikeliturgintza.com

A D

ASESORIA DEBA C.B.
JURIDIKOA - LABORALA - FISKALA - ASEGURU KONTABLEA - HIGIEZINAK

Miren Lore: 669 895 617
Edurne: 669 895 619

Tel.: 943 192 127
HONDARTZA, 2 - BEHEA Fax: 943 192 482
20820 DEBA (GIPUZKOA) ase.deba@teleline.es

atari
etxebizitza zerbitzu integrala

SALMENTA, ALOKAIURUAK, ABOKATUA
Lersundi 1, behea 20820 - DEBA
Tel.: 943192263
www.atarideba.com

Lizaso
Autozerbitzua

Lersundi kalea, 21
Tlfnoa: 943 19 27 29



ITXAS GAIN
Taberna
ITXAS GAIN

Hondartza ondoan
Urte guztian zabalik

Nafarroa Plaza • Tlfnoa.: 943 192 576
20820 DEBA

oskarbi



Pintxoak
Ogitartekoak
Plater Konbinatuak

Lersundi kalea, 9
Tel. 943 029 488 - 918 644 014
20820 DEBA (Gipuzkoa)

ALBIZU
HARATEGIA

Lersundi kalea, 27 - 943 19 14 47 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)

IGARZA
TABERNA

Ostolaza, 5
DEBA
Tel.: 943 191 197

IZENBE

- Gosariak
- Txikiteoa
- Pintxoak



Itur kalea • Tlfnoa.: 943 192 473 • 20820 DEBA

Seven Clovers
Irish pub

Gozatu gure garagardoa

Hondartza, 11 • 20820 DEBA • Tel. 943 191 295

Bar LOREA

“Orotariko tartak etxean eginak”



Angulero kalea • 20820 DEBA • Tlfnoa.: 943 191 095

MAXI BAR



Lersundi, 28
Tel.: 943 191 206
Deba (Gipuzkoa)

Bordatxo
JATETXEA

Berezitasuna Parrilan:

- Asteburuko menuak - Parrilan menuak - Mokadu eta pintxoak
- Plater konbinatuak - Etxera eramateko jakiak - Ospakizunak

Zesterokua Plaza
Tel.: 943 029 376
Bazkariak: 13:00 / 16:00
Aitariak: 20:00 / 23:00

Euskararen Eguna

Abenduak 3, osteguna

16:30. Txantxariak. Jolas dinamizazio musikatuak

18:00. Jolasak, tailerrak, musika...

19:00. Euskal dantzak eta abestiak (bildutakoen artean sei euskal dantza eta hiru kanta abestuko dira Foruen plazan)

Ondoren, Kalean Kantuz kalez kale.

EUSKARAZ

bizi

nahi dut

EUSKARAK 365 EGUN!!



Debako Udala

